

BALOREZKO PROPOSAMENA

Balorezko proposamena enpresa batek bezeroari eskaintzen dion irtenbide edo onura da, haren behar edo arazo zehatzak konpontzeko.

Bakoitzaren osasuna bizitzako gauza garrantzitsuena da eta gure elikadura zaindu beharrean gaude. Gure gizarteko asko eta askok janari azkarra erosten duten orduan, bere osasunaren garrantzia ukatzen dute eta horrek gizarte arazoak dakartza, horregaitik gure enpresaren oinarrian osasuna jartzeak pertsona askoren ongizate mailak gorakada ekartzea izango luke.

Gure zerbitzuak janari azkar eta osasuntsua eskeintzen du. Garrantzitsua ikusten dugu gizakiak otordu osasuntsuak izatea. Orain arrakasta handia du janari azkarrek, baina ez osasuntsu kontsumitzeak. Gure zerbitzu honekin arazo honi irtenbidea aurkitu diogula uste dugu. Bi muturrak bateratu ditugu, hots, azkartasuna eta osasuna.

Gure enpresan garrantzia handia ematen diogu naturarekiko errespetuari eta ekonomikoki eta gizartearekiko jasangarritasunari. Gainera, gure hornitzaileak bertakoak direnez gure aztarna ekologikoa txikia izango da.

Zerbitzu honek bi helburu nagusi ditu, jendea osasuntsu jaten ohitzea eta bertako enpresa txiki eta baserriei bizia ematea, gure lehengaiak hauei erosiko badiegu. Eskainiko ditugun menuak Km-o, ekologikoak eta garaian dagokion haragia, arraina, barazki eta fruituekin eginak izango dira. Hau da, gure menuak bertako produktuekin eginak egongo dira eta bertako produktuez gain zuk zure etxean jan ditzazkezun platerak izango dira, mimo handiz eginak. Urtaroaren arabera gure menuko platerak egokituko dira, izan ere, momentuan dauden produktuak eskeiniko ditugu gure menuan. Honek esan nahi du produktu freskoak izango direla. Egunean hasierako bat, plater nagusia eta postrea egongo dira, hauetako bakoitzean hiru aurkera eskeiniko ditugu. Neguko menua horrelako da adibidez, hasierakoan: azalore-krema, entsalada eta perritxiko tortila; plater nagusian: legatza barazkiekin, kalabaza-lasaina eta garbantzuak; postrean: intxaursaltsa, jogurt naturala fruitu lehorrekin eta sagar erreak.

Ordutegiari begira gure zerbitzua egunerokotasunean oinarrituko da, hau da astelehenetik ostiralera eta bazkal orduan batez ere. Lokala 12:00etatik 17:30etara zabaldua egongo da, baina jangela 12:00etik 15:30etara. Gure platerak afaltzeko asmoa baduzu, aurretik abixatu eta zure eskaria 17:30 baina lehen eskuratzeko aukera edukiko zenuke gure lokalean, etxean jateko, gure jangela itxita egongo baita.



Gure menuak gure lokalean eskuratzeko aukera izango duzu baita bertako jangelan jatekoa ere. Gure jangelan jateko asmoa baduzu guk mahi-tresnak utziko genizkizuke. Lokaletik kanpo jatea aukeratzen baduzu, hau da, etxea, kalean edo lanean kontsumitu nahi baduzu, etxetik tuperra ekarri eta guk janariz beteko genizuke. Tuperra ahaztuko balitzaizu, gure tuperra emango genizuke. Alde batetik, guk utzitako tuper hau itzultzen baduzu aurretik ordaintutako diru kopurua itzuliko genizuke, egoera egokian bueltatzen badiguzu; beste aldetik, tuperra zuretzat izateko aukera ere ematen dugu, baina dirua ez genuke itzuliko. Orain aipatutako tuperrak biodegradableak eta ekologikoak izango dira eta poltsa berrerabilgarriak izateak plastikoaren erabilera gutxituko du.

Tuperrak eskeintzen ditugun modu berean, telazko poltsak ere eskuragarri izango dituzue tuperrak bertan sartzeko, horren ondorioz plastikoa gutxitzen dugulako, baina tuperrekin ez bezela, poltsak ezingo dira itzuli.

